

IKASTOLEN EGOITZAK - 2022/2023 norabide txostena

“Ikastolen Egoitzak” elkartearen Biltzar Nagusia urtean zehar hiru aldiz bilduko da. Elkartearen Bulegokideak bederen hilabete guziz bilduko dira. Elkarrekin ikastolak eta erakunde publikoen arteko bilkurak antolatuko ditu, egoitza berriak eraikitzeke proiektuak edo eskola eraikinetako berantolaketak, handitzeak, konponketak, mantentze lanak gauzatzeko. Funtsean, baliabide ekonomikoak eta humanoen arabera, elkarrekin saiaturiko da ikastola bakoitzak eraikin egokiak ukan ditzan segurtatzea. Hori Ikastolen Kontseiluak bozkatuko duen aurrekondua errespetatuz eta Seaskako Bulego Eragilearen adostasunarekin egingen da.

Urtean zehar, “Ikastolen Egoitzak” elkarte bakoitzak ikastola bakoitzarekin harremanetan sartuko dira : lehendakaria eta bertako “Ikastolen Egoitzak”-eko ordezkariarekin, ikastolaren eraikineri lotuak diren gaiak elgarrekin aipatzeko. Bertalde, beharra sendituko duelarik, ikastola bakoitzak bere erreferenteari dei egiten ahalko dio.

Ikastolen ibilamolde gastuak txikitzeke gisan, “Ikastolen Egoitzak” elkarteak mutualizazio aterabideak proposatuko ditu.

Oroitu : alokatzaile arruntak bezala, ikastolek beren egoitzen mantenimendua segurtatu behar dute (eraikinak publikoak baldin badira edo “Ikastolen Egoitzak” elkarteak). Betebehar hori, ikastolek izenpetu duten hitzarmenaren 4º artikuluan agertzen da.

Bertalde, « Ikastolen Egoitzak » ikastola guztiak biltzen dituen elkarrekin bat dela oroitaraztea garrantzitsua iduritzen zaigu. Ondorioz, ikastolak handitzeke, arraberritzeke, konpontzeke egingen diren zorrak mutualizatuak dira eta buraso guztiak dira. Elkartearen bulegokideek baita ikastolaren ordezkariak ere egingen duten lanari esker, diru aintz guttiago xahutzen da. Ekonomia handi horiei esker, proiektuak gauzatzen ahal dira. Ikastola bakoitzetan gure lanaren zergatiak oroitaraztea egokia litzateke.

Aurreikusitako edo eskatuak izan diren lanak

- **Alhorga ikastola (Arbona / Ahetze) :** negoziaketak egingen ari dira, Alhorga ikastola egoitza publiko batera lekuz aldatzeko.
- **Azkaine :** Herriko etxeak eskola publiko berri bat eraikiaraziko du eta eskola publikoak gaur egun erabiltzen duen egoitza ikastolari utziko dio. Momentuko, arkitektoen arteko proiektuen lehiaketan dira. Obralaria 2022ko udan hautatuko dute, eta lanak 2024 urtean bururatuak izan behar lirateke.
- **Azkarate :** Herriko etxea lekuz aldatuko da eta gaur egun erabiltzen duen egoitza libratuko da. Normalki ikastolari utzi beharko lioke. Proiektua egingarria denez jakiteko ikerketak abiaraziko ditugu (egokitze edo handitze lanak izan behar direnez zehazteko)
- **Bardoze :** egoitza berriz antolatu beharko da, ikasleen kopurua handitzen ari baita.
- **Basusarri :** Arraberritze proiektua aitzina doa. Lanak laister hasiko dira eta ikasgelak 2023 urtean prest izanen dira. Lan horiek diruztatzeko, Suprefeturaren erabakia igurikatzen ari dira.
- **Beskoitze :** gaur egungo ikasgelak aterbetzen dituzten moduloak sobera txikiak eta zaharkituak dira. Lur eremu bat bilatu dugu bainan arrakastarik gabe. Ondorioz, 2021ko abenduan herriko etxeari proposatu diogu egoitza bat hor berean eraikitzea eta lanen denboran ikastola ondoko lur eremuan ezartzea. Herriko etxeak gure proiektua egingarria denez eta eremu publikoan ikastola eraikitzea onartzen duenez 2022ko ekainean erranen digu.

- **Bidarte** : Ikastola sobera txikia da. Herriko etxeari ikastolaren ondan kokatua den elkartearen etxea uztea eskatu diogu.
- **Biriatsu** : “Bakea” hotela ohiaren arraberritzeko eta antolatze proiektua, herriko etxea eta Euskal Elkargoarekin eramaiten ari dira. Ikerketak egiten ari dira.
- **Estitxu Robles kolegioa / Oihana (Baiona)**: 2021 urteko sartzeari Departamenduak arraberritu dituen “A” & “B” eraikinetan egin zen. Administrazioa, irakasleen gela eta IDZ aterbetzen dituen “C” eraikina ezta arraberritua izan: ondorioz, Ikastolen Egoitzak elkarteak barneko konponketak bere gain hartu ditu. Haatik, Departamenduak teilatua eta paretaren arraberritzea bere gain hartuko luke.
 Estaian kokatuak ziren apartamendu ohiak arraberrituko ginituzke, Seaskako irakasle batzuen aterbetzeko.
 Aurrekondua 70 000 €.
- **Baiona Oihana** : Herriko etxeak arraberritze lanak pagatu zituen ondotik, alokatze kontratu bat negoziatzen ari dira.
- **Baiona POLO** : Argindarra fakturak apaltzeko, berogailuak ordezkatuak izan ziren. Energiaren erabilpena hobetzeko ikerketak segitzen ditugu.
- **Bernat Etxepare Lizeoa** : Ikasle kopuruak handitzen ari dira, ondorioz lizeoa handitu beharko da. Ikastetxearen aitzinean kokatuak diren bi etxe hutsak Euskal Elkargoa jabearekin eskatu dizkiogu. Bainan, momentuko, Elkargoak Baionako iparraldeko auzoaren beharren ikerketaren emaitzak itxoiten ditu erabaki baten hartzeko.
- **Hiriburu** : Kopuruak handitzen ari dira, ondorioz, ikastola txikiegia da. Euskal Elkargoa egoitzaren jabearekin negoziaketak hasi beharko ditugu.
- **Itsasu** : Ikastola txikiegia da (loaldien gela, ikasgelak). Herriko etxea eta Elkargoa handitze proiektua ikertzen ari dira : ondoko lur eremua erabiliz edo ondoko eskola publikoarekin egoitzak trukatzuz.
- **Lekorne** : Ikastola 2021ko iraileko sartzeari lekuz aldatu zen eta Hodia etxean ezarri zen. Ikastolen Egoitzak elkarteak alokairua bere gain hartzen du. Gerezieta auzoko ikastola ohian kokatuak ziren moduloak saldu ditugu.
- **Piarres Larzabal kolegioa** : Ikasle kopuruak handiak baitira, aterbe berri bat eraiki beharko da, gaur egun erabiltzen dena sobera txikia delakotz. Lanak 2022ko udan egingen dira eta 130 000 € kostatuko dute.
- **5^{garren} kolegioa** : Senpereko herriko etxeak proposatzen digun lur eremuaren PLU sailkapena aldatzen ari dira. Ikastetxearen eraikitzeko ikerketak egiten ari dira. Lanak uda ondotik hasi behar lirateke. Diruztatzea Departamenduarekin lantzen ari dira.
- **Sohüta** : Ama ikastolan aterberik ez baita oraindik, pilotaleku estalia eraikiko da kanpoko eremuan. Gastua Ikastolen Egoitzak elkarteak bere gain hartuko du.
- **Xalbador kolegioa** : Jantegi berriaren eraikitzea (Xalbador kolegioak pagaturik) eta Integrazio Batzordeko bulego berriaren antolaketa (Ikastolen Egoitzak elkartearen gain) 2022 urtean bururatuak izanen dira.
- **Ziburu** : Gaur egungo egoitza sobera txikia da. Herriko etxeak proposatu digu Gurutze Gorria auzoko eskola publikoaren egoitzara joatea, bertako ikasleak Marinela eskola publikoan eskolatuak izanen direlarik. Aldaira 2022ko irailean egin behar litzateke. Urteko alokairua 10 000 €-koa izanen da eta Ikastolen Egoitzak bere gain hartuko du. Ikastolak gaur egun okupatzen duen lur eremuaren geroari buruz gogoetatzeko ari dira, Ikastolen Egoitzak jabea baita.
- **Hôtel des Basques** : lan egingen duten enpresen kontratuak izenpetuak dira. Lanak 2022ko uda aitzin hasiko dira. Aurrekondu orokorra 1 245 000 €-koa da. Hemengo enpresak lanaraziko ditugu. Proiektuaren eramailea “IKASLEAK” elkarteak da, Seaska federaziokoa. “Ikastolen Egoitzak” elkarteak segipen teknikoa segurtatuko du.

Trois fois par an l'association sera invitée à se réunir en assemblée générale. Le bureau d'« Ikastolen Egoitzak » se réunira au minimum tous les mois. Il organisera les différentes rencontres entre les ikastola et les collectivités locales en lien avec Seaska pour mener à bien les projets neufs, les agrandissements ou modifications des locaux, les travaux courants d'entretien et de réparation. En fait, l'association assurera dans la mesure de ses moyens financiers et humains, de proposer des locaux adaptés aux besoins des différentes Ikastola, dans le cadre du budget affecté par le Conseil des Ikastola et en lien avec le Bureau Exécutif de Seaska.

« Ikastolen Egoitzak », par le biais de ses membres référents restera en contact avec toutes les ikastola (président(e) et représentant(e) d'« Ikastolen Egoitzak » dont il a la charge dans le courant de l'année. De même, chaque Ikastola pourra solliciter son/sa référent(e) lorsqu'elle en jugera la nécessité.

« Ikastolen Egoitzak » proposera des solutions pour alléger le coût de fonctionnement de chaque Ikastola par mutualisation.

Rappel : les Ikastola occupant des locaux mis à disposition par « Ikastolen Egoitzak » ou par une collectivité territoriale sont tenues d'entretenir les locaux qu'elles occupent au même titre qu'un locataire normal dans un logement. Ceci fait partie de l'article 4 « charges et conditions » figurant dans la convention que l'Ikastola a signée et s'engage à respecter.

Enfin, il est important de rappeler qu'« Ikastolen Egoitzak » est une association qui fédère toutes les ikastola et qui à ce titre concerne donc tous les parents d'élèves : les dettes contractées par « Ikastolen Egoitzak » pour la rénovation, l'agrandissement ou la construction des locaux scolaires sont mutualisées et partagées par tou(te)s. Le bénévolat et l'implication des membres du Bureau d'« Ikastolen Egoitzak » ainsi que des délégués de chaque ikastola permettent de faire de substantielles économies sans lesquelles la plupart de nos projets ne pourraient jamais voir le jour. Il importe donc de mener une action de sensibilisation dans chaque ikastola afin de rappeler le sens de notre travail.

Travaux demandés ou déjà programmés :

- **Arbona-Ahetze** : Discussions en cours pour déménager vers des locaux publics.
- **Azkaine** : La commune va construire une nouvelle école publique et nous mettre à disposition l'actuelle. Le dossier est au stade du concours d'architecte, choix de la Maîtrise d'œuvre à l'été 2022, livraison du bâtiment prévue 2024.
- **Azkarate** : La mairie va déménager et libérer les locaux actuels, qui devraient être réservés à l'ikastola. Etude de faisabilité à réaliser pour étudier les aménagements nécessaires et les extensions éventuelles.
- **Bardoze** : Réaménagement des locaux à prévoir pour adaptation à l'augmentation des effectifs.
- **Basusarri** : Le projet de rénovation est en cours, les travaux vont démarrer pour une livraison des travaux en 2023. Financement en attente de la décision de la Sous-Préfecture.
- **Beskoitze** : Les locaux actuels en modulaires sont trop étroits et vétustes. Après recherche de foncier sans succès, nous avons proposé à la mairie de construire un bâtiment sur la parcelle actuelle, en déménageant provisoirement l'école sur un terrain voisin. La mairie doit se prononcer fin juin sur la faisabilité présentée en décembre 2021, pour autoriser la construction du bâtiment sur son terrain.
- **Bidarte** : L'ikastola est à l'étroit. La mairie a été sollicitée pour mise à disposition de locaux à proximité de l'école actuelle.

- **Biriatsu** : Le projet de réaménagement de l'ancien hôtel « Bakea » doit être mené en collaboration avec la mairie et la CAPB. Etudes en cours.
- **Estitxu Robles kolegioa / Oihana (Baiona)** : La rentrée de septembre 2021 a eu lieu dans les locaux rénovés (bâtiments A et B) Au niveau du bâtiment non rénové par le Conseil Départemental (bâtiment C) qui abrite l'administration, les locaux des enseignants et le CDI, Ikastolen Egoitzak poursuit les travaux de réaménagement intérieur. Le Conseil Départemental devrait prendre en charge la rénovation du clos-couvert.
Dans les anciens logements de fonction de l'étage, Ikastolen Egoitzak envisage la rénovation des locaux pour créer des logements partagés à destination des enseignant(e)s ou stagiaires de SEASKA.
Budget prévisionnel prévu 70 000€.
- **Baiona Oihana** : Après travaux financés par la mairie, un bail est en cours de discussion.
- **Baiona POLO** : Après remplacement des convecteurs électriques pour diminution de la consommation, les études d'optimisation énergétique des locaux se poursuivent.
- **Bernat Etxepare Lizeoa** : Avec l'augmentation des effectifs, le lycée aura besoin de s'étendre. Deux maisons vides, aujourd'hui propriétés de la Communauté d'Agglomération ont été demandées, mais l'agglo souhaite attendre les résultats de l'enquête en cours sur les besoins du secteur géographique de Bayonne nord, avant de répondre.
- **Hiriburu** : Avec l'augmentation des effectifs l'ikastola est à l'étroit. Des discussions doivent se mettre en place avec la Communauté d'Agglomération, propriétaire du bâtiment.
- **Itsasu** : les locaux sont désormais trop exigus (salle de sieste, classes). La mairie et la CAPB étudient un projet pour agrandissement de l'ikastola sur la parcelle voisine, ou un échange de locaux avec l'école publique.
- **Lekorne** : L'ikastola a déménagé en septembre 2021 dans les locaux de la maison Hodia. Ikastolen Egoitzak prend en charge le loyer. Les anciens bâtiments modulaires de l'ikastola ont été revendus par Ikastolen Egoitzak.
- **Piarres Larzabal kolegioa** : Les effectifs importants du collège nécessitent la création d'un préau neuf en complément du préau actuel trop petit. Les travaux sont prévus pendant les vacances d'été 2022 (130 000€)
- **5^{ème} collège** : le terrain proposé par la mairie de Saint Pée sur Nivelle fait l'objet d'une modification de PLU, en cours d'instruction. Les études sont en cours pour la construction du bâtiment. Démarrage travaux après l'été. Financement à l'étude avec le Conseil Départemental.
- **Sohüta** : la partie maternelle de l'ikastola ne disposant pas de préau, un préau type fronton couvert va être aménagé dans la cour des maternelles, pris en charge par « Ikastolen Egoitzak ».
- **Xalbador kolegioa** : Les travaux de la cantine (prise en charge Xalbador) et des bureaux d'Integrazio Batzordea (prise en charge Ikastolen Egoitzak) seront terminés pour le courant 2022.
- **Ziburu** : Les locaux actuels sont saturés. La nouvelle municipalité a proposé l'actuelle école du quartier de la Croix Rouge, une fois celle-ci libérée par déménagement à l'école Marinela. Intégration des nouveaux locaux par l'ikastola prévue à la rentrée de septembre 2022. Un loyer annuel de 10 000 € devra être pris en charge par Ikastolen Egoitzak. Par ailleurs, l'avenir du terrain actuel occupé par l'ikastola, propriété d'Ikastolen Egoitzak est en réflexion.
- **Hôtel des Basques** : les marchés de travaux sont signés, démarrage des travaux avant l'été 2022, pour un montant total de 1.245.000€TTC, avec des entreprises locales. Le projet est porté par IKASLEAK, association dédiée de Seaska, et techniquement c'est Ikastolen Egoitzak qui assure l'assistance à Maitrise d'Ouvrage.